

Juan Miguel Gutiérrez semearekin solasean

Pello Gutiérrez Peñalba

Juan Miguel Gutiérrez Márquez (Errenteria, 1945), zinema munduan ibili da beti. Eusko Jaurlearitzako HABE zerbitzuan lan egiten du, euskara ikasteko ikusentzunezko material didaktikoa sortzen. Baina pasio bat dauka: dokumentalak egiten ditu. Eta ez nolanhikoak: Donostiako Zinemaldian ibilia izan da bere dokumentalak aurkezten, berak bakar-bakarrik, inongo zinema-industriatik laguntzarik jaso gabe, 100 euroko aurrekontuarekin.

Bere semea, Pello, ikus-entzunezko munduan lan egiten hasi da. Biak elkarrekin solasaldian ibili dira. Gaztea galderak egiten, heldua, erantzuten. Gaztea, ikasten ari denaren jakin-minaz, eta bere aitaren iragana ezagutzeko irrikaz. Heldua, bere bizitzari errepasso bat eginaz, ibilitakoari begirada samur bat emanaz.

Hau da hizketaldi horren emaitza.

Gure familian zinema zaletasun handia egon da betidanik. Zure zinearekiko zaletasun hori etxean bertan mamituko zenuen, ezta?

Txikitan, Errenterian aukera gutxi zegoen haurrek zinema ikusi ahal izateko. Dena den, nire gurasoek zaletasun handia zuten. Igandero, gu haurrok etxean gelditzen ginen eta haiek zinemara joaten ziren. Berdin zitzaien zein film ematen zuten. Lo hartu aurretik, amak hiru seme alabei pelikula guztiak kontatzen zizkigun. Seguruenik, haurrentzako desagokiak ziren eszenak aldatuko zituen bere kontakizunean, gure pentsamoldera aldatzeko. Baina erabat liluragarriak ziren fantasiaz betetako istorio horiek guretzako.

Bestalde, txikitan Cine-Nic izeneko proiektore-jostailu bat oparitu zidaten. Oso proiektzio elementalak egiten ziren bertan, baina auzoko bakarrak ginen, horrelako makina bat geneukanak. Beraz, etxeko atarian jartzen ginen eta haur guztientzako proiektzioak egiten genituen bertan.

Beranduago, Kongora joan zinen, orduan Belgikaren menpean zegoena...

Jesuita ikasketak hasi nituen eta Kongora bidali ninduten nire ikasketak burutzera, Kinshashako eskola batean klaseak ematen. Han ere zinemarekin



Juanmi Gutierrez, dokumentalista.

erlazioa eduki nuen, zineklub bat sortu baikenuen. Ikasleentzako zuzendua zegoen, baina beste jende askok ere parte hartzen zuen. Alemaniari eta frantziar enbaxadek ekartzen zituzten 35 mmtako filmen kopiak erabiltzen genituen, eta jende dexente inguratzen zitzaigun, han ez baitzegoen telebista edo zinemarik. Gogoan dut Alemaniako enbaxadak utzi zigun filme bat ikusi genuela. Orduan erabat ezezaguna zen zinemagile batena. Werner Herzog zen. Behin eta berriz ikusi genuen "Signos de vida", bere lehen filma.

Horrela, zinema kultura handia ikasi genuen. Nire ustez, han sortu zen nire zinema zaletasun heldua.

Afrikan egonda, nola erabaki zenuen zinemagintzan lan egitea?

Kongoan bertan ez zegoen telebistarik. Beraz, ekimen bat sortu zen bertako telebista sortzeko. Eta



Juan Miguel, Pello semearekin solasean.

horretarako, norbaiti zinema-hezkuntza ematea erabaki zuten, telebistako zuzendaritza batzordean parte hartzeko. Eta pertsona hori ni izan nintzen. Bruselara joan nintzen, zinemagintza ikastera, amaitutakoan Kongora bueltatzeko asmoz.

Eta zer egiten zenuen zuk Bruselaren, masoien zine eskola batetan?

Kar, kar... Han bi eskola zeuden: bata katolikoa, eta bestea, masoiena. Baina bigarrena hobea zela entzunda neukan, eta dudarik gabe masoien eskolara joan nintzen, libreagoa. Jende irekia zen, nik ordura arte ikusi nuena baino pentsamolde irekiagoa zuten haiek. Urte hartan 12 ikasle hartu gintuzten bakarrik. Haie-tatik bi ziren belgikarrak besterik ez: besteak, atzerritarrak ginen: tuneztarrak, kanadarrak, frantziarrak...

Zer ikasi zenuen han?

Oso eskola irekia zen. Teknika ikasi genuen, bai. Baina batez ere, obra bat zer zen, arazoaren aurretiko jokaera etikoa, eta hantzeko gauzak ikasten genituen. Nik erlazio berezi bat neukan Tuneztar ikaskide batekin, Mounir Baaziz-ekin. Biek apustu indartsu

bat egin genuen: dokumentalak lantzea erabaki genuen.

Horrek ez al zizuen arazorik eman garai haietan?

Bai, gaur egun dokumentalak indar handia dauka, baina orduan nahiko gutxietsia zegoen. Arazoak izan genituen gure ikaskideekin. Kurtso amaierako lanean bideoz landutako dokumental bat egin nahi genuen, eta argazki-zuzendaritza egin behar zuten ikaskideak ez zuten parte hartu nahi izan bideoan ez zuelako lanik egin nahi. Dena den, garai hartako bideoa ez zen gaur eguneko bideo digitala bezalakoa. Oso kalitate txarra ematen zuten, baina hala ere, gure lan egiteko modura oso ongi moldatzen zen, bideoan lan egitean inguruan jende gutxi behar genuelako. Orain bezala, bideo formatua oso erabilgarria zen, 35mmko zinemarekin alderatuta. Horrela egin genuen "Urrutiko seme-alabak" film dokumentala.

Nik ezin izan dut film hori ikusi...

Pelikula hori galdu egin da. Gordetzen genuen kopia bakarra Portugaleko zinemaldi batera bidali genuen, Krabelinen Erreboluzioko momentuan. Eta hantxe gelditu omen zen, ez baitugu haren berririk jaso, erreboluzioak sortu zuten iskanbilaren ondorioz.



Juanmi, lurrean eserita, eskubitik hirugarrena, Errenteriako bere ikaskideekin.



"Bozes Lexanas" (2.005) bere dokumentaletik.

Eta Bruselaren bertan erabaki zenuen apaizgintza ez zela zure bidea.

Eskolara iritsi bezain pronto, Afrikako politika nola zihoan kontutan hartuta, eta nire pentsamolde aldaketaren ondorioz, erabaki handi bat hartu nuen: garai hartan Afrikarrei egin niezaiekeen mesede handiena hara Jesuita bezala ez bueltatzea zela pentsatu nuen. Harreman sendoa gorde nahi nuen, baina ez haien erabaketan parte hartzea. Afrikarrek beraiek hartu behar zituzten haien erabakiak.

Pertsonalki ere, Jesuitarren munduan inbutu efektu bat nabari nuen. Hau da, ni ordura arte oso lasai bizi nintzen, inbutuko goiko aldean igeri eginaz, baina pixkanaka nire askatasun eremuak gero eta meharragoak zirela ikusten nuen. Horregatik utzi nituen Jesuita ikasketak.

Eta Donostia Herri Irratian lanean hasi zinen lanean, Donostiara bueltatu ondoren. Bertan, euskaraz haurrentzako egin zen lehen luzemetraia egin zenuen. Inork ez du harri filme aitzindari horri buruz hitz egiten...

Han Paco Sagarzazurekin lanean hasi nintzen, eta berak haurrentzako antzerki obra bat idatzi zuen: "Balantzatxoa". Proposamen bat egin nion: antzerki estiloa gordez, obra hori zineman grabatzea, testigantza bezala ia... Baina ez antzoki batean grabatua, dekoratu naturalean baizik. Euskaraz egin genuen,

Pelikula eta laborategia ordaintzeko, Aurrezki Kutxa Probintzialera joan ginen, eta haiek guztia ordaindu ziguten. Gainera, "Gaztetxoek Kluba" izeneko erakundearen barruan sartu zuten, Gipuzkoako herri guztietatik filma erakutsiz. Eta milaka haurrek ikusteko aukera izan zuten.

Eta Super-8 zinema formatuan egin zenituen laburmetriak?

Garai batean euskaraz egindako laburmetrai asko egin genituen Super-8 formatuan. Lan asko ematen zuten, ezin baitzen egindakoa eraldatu. Pelikulan ez zen negatiborik erabiltzen eta edozein akats bertan gelditzen zen, konpondu ezinik.

Baina oso gauza interesgarriak egin zenituen.

"Viudas de vivos e mortos", "Izaba Rosa", "Gaztain Kormutxa" (Xalbadorri buruz), "Itxoiten"... Horrelako laburmetriak

maitasun handiarekin oroitzen ditut. Herritatik proiektioak egiten ibiltzen ginen, herrietako kultur astetan parte hartuz.

Orduan HABEn lan egiteko aukera izan zenuen.

Hasiera batean HABEn inor ez zegoen ikus-entzunezkoari buruz zekienik. Gure lehenengo pausuak, hizkuntzaren pedagogiari mesede egingo zion ikus-entzunezko gramatika bat sortzea izan zen. Horrela sortu zen ETBn eman zen "Bai Horixe" programa, euskarako lehen mailatan ikasi ahal izateko.

Gainera, euskal aktoreei bultzada handia eman zien...

Bai. Garai hartan euskal aktoreek ez zeukaten ikus-entzunezkoan esperientziarik. Eta guk eman genien aukera, astero-astero programa bat egin ahal izatean. Horrela ikasi zuten ogibidea Mikel Garmendia, Kontxu Odriozola edo Elena Irureta bezalako aktoreak.

Eta bapatean, zure proiektu pertsonalak egiten hasi zinen.

HABEn lana gutxitzen hasi zenean, nire sortze proiektuentzako denbora edukitzen hasi nintzen. Horrela sortu ziren nire bi lehen dokumentalak: "Cuentos de Mayo" eta "Paisaje con nieve". Biak nire inguruko pertsonen buruzkoak dira. Lehenengoan, nire amaginarrebari buruzko pelikula bat da. Berak bere bilobei egiten dien opari bat da, haren 92. urtebetetzean. Bigarrenean, nire gurasoen buruz hitz egiten dugu semeok, haien bizitza gogoratuz.

Lehen aldiz askatasun guztia eduki nuen proiektu bat egiteko.

Ez ahaztu Atzegirentzako dokumentalak.

Egia da! Harreman handia dut Atzegirekin, adimen urritasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkartearekin. Beraiekin dokumental dezente egin izan ditut. Adibidez "Bizi" edo "Nos han robado el rostro", edo "40".

Zerk bultzatu zintuen film hauek egiteko?

Teknologia digital berriak. Merkatura azaldu berriak ziren kamera digital berriek eta editatzeko modu berriek. Horiek askatasun osoz lan egiteko aukera ematen dute. Ez duzu jende askoren beharrik, ezta azpiegitura askoren beharrik ere. Horren bidez, nire kasara lan egin dezaket, nire erritmora, proiektu profesionalek denbora eta diru aldetik ematen duten loturarik gabe.

Eta lan egiteko modu horrek bere fruituak eduki zituen. Zure hurrengo filmarekin "Tabula Rasa"rekin, Donostiako Zinemaldian egon zinen.

Film hori pertsonen azalean sortzen diren eraldaketei buruzkoa da. Denborak edo bizitzako gertaerek sortzen dituztenak, ala norberak kontzienteki sortarazten dituenak. Zinemaldian egon zen, nahiz eta bideoan grabatua izan, eta zinegile bati algara sortaraziko liokeen aurrekontuarekin egina izan.

Hemendik aurrera, dokumentalak uztartzen ibili naiz, urtero dokumental bat eginaz. Hurrengo urtean "Bozes Lexanas" egin nuen, Aragoiko herri abandonatuari buruz, bertan bizi ziren pertsonen garai hartako bizitza gogoratzen dute bertan. Bestalde, herri batzuk berriro birbizitzen ari dira eta horren testigantza gorde nahi nuen. Eta hurrengo filmean, "Isiltasun Kalea", Donostiako kale-musikariei buruz hitz egin nahi izan nuen.

Film bakoitzean, aurreko pelikulan sortutako gai batek jarri zuen sorkuntza hazia. Herri abandonatuaren istorioa pertsonen zaharkuntza prozesuan sortu zen, herriek ere zaharkuntza prozesu hori nabaritzen baitute. Eta musikariei buruzko filma aurreko dokumentalak sortu zuen, herriz herri zihoazen musikari batzuekin izan nuen elkarrizketa batetan.

Baita ere Zinemaldian ikusteko aukera eduki genuen...

Bai... Urtero hartu zituzten Zinemaldian film horiek. Azkena, ordez, ez dute hartu.

"Angor" oso filme pertsonala iruditzen zait, pertsonalegia agian. Munduko hilerriari buruzko doku-



"Angor" (2.007) bere dokumentaletik.

mental bat prestatzen ari nintzen bitartean, bihotzeko ebakuntza bat egin zidaten. Beraz, bi gaiak uztartzen ditut: kanposantuak eta heriotzarekiko nire esperientzia pertsonala. Striptease pertsonala da, lotsarik gabe egina. Adibidez, jainkoari buruzko nire ikuspegia azaltzen dut. Batzuetan lotsa edo auto-zentsura bat sentitu dezakezu halako gaiak erakutsita, baina ez dut lotsarik eduki nahi izan.

Eta beste dokumental bat duzu bidean: "Motema na ngai" ("Nire bihotza").

Bai. Jende gutxik izan du ikusteko aukera. Amaitua dago, baina azken ukituak ematen ari naiz. Berriro ere hasierako puntura bueltatu naiz. Afrikara. Ni Kongon egon nintzenetik ez nintzen berriro hara bueltatu. Baina hori zor nion kontinenteari. Eta Afrikari buruzko nire ikuspegia, gure ikuspegia, erakutsi nahi nuen. Balentria handiarekin egin dut, Afrika bezalako gizarte konplexu bati buruz hemendik hitz egiteak dakartzan arazo guztiak kontutan hartuz. Maitasunetik ezin dira gauza txarrak sortu.

Zure zinemagintzaren ereduarekin bat, zein dela uste duzu?

Nire ustez, jende xumeari buruzko interesa. Ez dut jende garrantzitsuari buruzko dokumentalik egiteko ardurarik. Nire amaginarreba, nire gurasoak, herri abandonatuarekin jendea, anonimoki bizi izan den aitona bat... haien bizitzak ditut gogoko.

Formalki, kontenplaziozko jarrera bat dut. Ez dut grabatzen dudaren inoren jokabidean tartekatzen nahi, baina badakit haren jokabideak nigan eta ikuslearengan nahasketa handia edukiko duela.

Eta hurrengo pelikula, noizko?

Datorren urtera itxoin beharko duzue! ■